

Audioaren erreferentzia: JJ-11 Merkealdia

Mailak: B2-C1

Funtzioa: gomendioak eman, deskribapena egin

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*beherapen, merkealdi, prezioa, jantzi, probatu, erosi*); erdarakadak (*entallauta, kariñoa...*); gomendioak (*behar izan, hobe duzu, zure lekuan...*)

Azken ekintza: *Erosketak merke egiteko gomendioak eman elkarri*

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa. Merkealditan eta egunerokoak merkeago erosteko estrategiak idatziko ditu ikasleak. Estrategia horiek, entzungo dutenarekin alderatzeko eta azken jarduerarekin lotuta egongo dira.


2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.


Hizkuntzari erreparatzeko bakarka egiteko ariketak:


1. “Merkealdia” hitzaren erabilera zuzenaz ohartzeko ariketa. “Beherapenak” hitza ordezkatu behar dute testu batean.
2. Elkarrizketan zehar erabili dituzten hainbat erdarakada beste era batera idatzi

1- Entzun aurretik

1.2 Topikoak




 gaiari hurbilpena egiteko: erosketak direla eta askotan erabiltzen diren topikoak emakumeari ala gizonari buruz esaten ote diren aukeratuko dute. Hasieran bakarrik eta gero ikaskidearekin komentatuko dute.


 Ariketa honek ez dauka zuzenketarik. Halere, esaldi klixekak direnez gehienetan ados egongo dira ikasleak.

 Ondoren, topiko horiekin ados dauden ala ez esango dute eta zaharkituta geratu ote diren komentatuko dute.


2- Entzun bitartean

2.1 Jon eta Jone merkealdian

   Elkarrizketa entzungo dute 1.2 ariketako topikoak bi protagonisten jokaeran antzeman ote daitezkeen ikusteko. Idatzi dezatela horietako zein iruditzen zaien egokiak pertsonaia bakoitzarena deskribatzeko.


 Egin duten aukeraketa arrazoitzeko, azaldu dezatela entzun duten ideia edo hitzen bat.

2.2 Merkealdira joatearen arrazoia

 Jonek merkealdira joateko benetako arrazoia zein den esan behar dute. Horretarako, bertan idatzita dituzten aukeren artean egokia hautatu behar dute.

Zuzenketa: erosketak egitera ateratzea

2.3 Joneren estrategiak

 Jonek beherapenetan erabiltzeko hainbat estrategia dituela esan dio Joni. Elkarrizketa bigarren aldiz entzunda, estrategia horiek zein diren idatziko dituzte. Ondoren, ikaskidearekin alderatuko ditu informazioa osatze aldera.

Merkealdi hasieran:



- Dendetara joaten da zer dagoen ikustera.
- Gustuko gauzei begia bota eta probatu egiten ditu.
- Probatzeko neurri desberdinak eskatzen ditu ikusteko zenbat ale dituzten

Beharpenek aurrera egin ahala:

- Prezioak behera egin zain egoten da
- Dendara itzuli eta lehen aukeratutako gauzak erosiko ditu



Beharpena duten gauzekin batera:


- Etxean lasai probatzeko gauzak hartu eta ongi geratzen ez zaiona dendara itzuliko ditu

 Joneren jokaera zer iruditu zaien komentatu ondoren,  jardueran merkealdian aurrezteko moduari buruz idatzitakoak partekatuko dituzte.

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Erosketetan aurrezteko gomendioak

  Binaka egiteko jarduera: Irudietako gauzak erosteko aholkuak emango dizkiote elkarri. Horretarako,

1. Ikasle bakoitzak zer erosi nahi duen aukeratu eta ikaskideari esango dio. Eskatu eta eman ditzatela behar beste xehetasun erosi nahi dutenari buruz.
2. Hainbat estrategia prestatu eta idatziko dituzte lagunak erosi nahi duen hori prezio onean lortu dezan. Nahi badute,  jardueran bildu dituzten ideiak erabili ditzakete.
3. Aholku horien berri emango diote elkarri.

Adibide hauek dituzte aholkuak osatzeko:

- Erabakia hartu aurretik, ikusi beharra daukazu nolako prezioak dauden merkatuan...
- Denborak aurrera egiten duen heinean, prezioak jaisteko beharra izaten du jabeak, orduan...
- Modelo berriena erosteko aukera hartzen baduzu, kontuan izan behar duzu prezioa asko garestituko dela, horregatik...
- Nik zure lekuan aukera guztiak aztertuko nituzke erabakia hartu baino lehen
- Komeni zaizu merkatua aztertzea, ondoren erabaki egokiena har dezazun
- Beharpen hasieran erosi ordez, zergatik ez duzu itxaroten bigarren merkealdia jarri arte?

- *Onena litzateke...*
- *Saia zaitez prezio eta ezaugarrien zerrenda oso bat egiten, produktuen arteko aldeak ahalik eta egokien baloratu ahal izateko.*
- *Hobe duzu...*

TRANSKRIPZIOA

Jon eta Jone II. Merkealdia(11)

JONE: Ea gero zorte apur bat daukadan...

JON: Zortea? Zertarako behar duzu ba zortea?

JONE: Rebajetara noa...

JON: Merkealdira? Baina oraindik rebajetan al daude ba?

JONE: Klaro! Zu non bizi zara?

JON: Izan duzu orain baino lehen joateko beta, ezta?

JONE: Ia, baina ez da denbora kontua.. estrategia kontua da

JON: Estrategia?

JONE: Bai... baina klaro, azken 10 urteak bainujantzia jantzita pasa duen norbaitentzat hau fisika kuantikoaren modukoa da ezta?

JONE: Rebajak hasten direnean lehenengo bueltatxoa ematen dut...

JON: Eta zergatik ez duzu aprobetxatzen orduan erosteko?

JONE: Lehen buelta horretan gustuko gauzak fitxatu eta probatu egiten ditut. Eta gero, rebajak aurrera egiten duten heinean, prezioa behera egiteko zain egoten naiz dendara itzuli eta aukeratutako hori erosteko?

JON: Eta hori da estrategia guztia? Ba iruditzen zait merkealdian ibiltzen den jende gehienak horixe egiten duela...

JONE: Bai, baina hau intuizio kontua da. Lehen bisitan, frogatzeko edo ikusteko eskatu eta gutxi gora behera neurri ezberdinak eskatuaz zenbateko stoka izan dezaketzen usaindu dezakezu..

JON: Usaindu? Beldurra sentitzen hasia naiz.. ehiza zakur bat ematen duzu!

JONE: Ba halakoa da rebajen mundua Jon...ehiza... indartsuenaren superbibentzia (bizirik irautea).

JON: Ziur jantziak ezkututzen dituzun horietakoa zarela... Apalen atzealdean utzi, pertxaren gainean beste jantzi bat jarri...

JONE: Keba..... ia inoiz..... batzuetan bakarrik jajajaja

JON: Batzuetan bakarrik... ia ia

JONE: Gero tarte bat baduzu nirekin etor zintezke ... zeee... “no es por nada” baina... arropaz aldatzeko beharra baduzu... Daramazun jertse hori Arzallus monagilo (akolito) zenekoa da-ta...

JON: Hala izango da, baina ez da modaz pasatzen... klasiko bat da...

JONE: Klasikoa? Bolaz beteta dago eta. Eta ikusi hemen azpian.. zabal zabal egina... soinekoa dirudi... Horrek ia ez du ez jantzten ez berotzen, ez ezer...

JON: Aizu, nik “Kariñoa” diot

JONE: Nahi duzuna egin, baina nahi baduzu etorri nirekin gero eta begiratuko dugu, ...ez dakit azken “temporadakoa”, baina behintzat XXI. mendeko jertseren bat edo ea topatzen dugun zuretzat

JON: Aizu Jone, ez dago gizonezkoentzat taila denda honetan?... hau behintzat haurrentzako jertsea da...

JONE: Jon, jertseak “entallatuta” eraman behar dira. Gorputzera “pegatuta”

JON: “Entallatuta” bai Jone, baina ikusi hau... besoak altxa eta Miley Cirusi bezala zilborra ikusten zait...

JONE: Baina Marijaia bezala ibiltzen zara zu kaletik besoak altxatuta edo zer?.. niri “neurri” hori gustatzen zait, baina nahi baduzu hartu “talla” handiago bat...

JON: Baina benetan hori dena erosi behar duzula? Zenbat poltsa daramazkizu (daramatzazu)?

JONE: Ez dira hainbeste eta gauza batzuk Nikorentzat dira

JON: Ia baina, hori guztia , horrela ordu eta erdian erostea... nik uste dut Guinness errekor bat hausten zabiltzala ..

JONE: Zer Guinness eta zer errekor... Rebajetako gauzak bai, baina besteak etxean lasai probatzeko hartu egin ditut ... eta gustatzen zaidana eta ongi geratzen zaidana soilik erosiko dut eta beste guztia dendara bueltatu...

JON: Baina hori egin al daiteke?

JONE: Ba klaro.. zein epokatan (garaitan) bizi zea zu?

JON: Ez dakit.. ni dendetara behin joatearekin nahiko aspertzen naiz.. pentsa... zuk esan duzuna.. niretzat hori gerrara joatea da...

JONE: Ba ni orduan “gerrera”(gerlari) bat naiz!

JON: Profesional bat.. mertzenario bat

JONE: Jende guztiak egiten du eta...

JON: Nahi duenak, eta ahal duenak...

JONE: “lastamos” Podemosekoa dirudizu... niretzat merkealdiak erosketak egitera ateratzeko aitzakia da. Eta bakoitzak ahal duen neurrian gastatzen du Jon,...

JON: Baina ezertarako balio ez duten gauzetan...

JONE: Dei nazazu buruarina, friboloa edo nahi duzuna.. baina niri honek “subidoia” ematen dit.... eta gainera.. askotan ezertarako balio ez duten gauzak dira gauzarik garrantzitsuenak...